

G77+Txina izeneko taldean 133 herrialde daude gaur egun. Aurten betetzen ditu 50 urte, Evo Morales Boliviako presidentea erakundeko presidentetzan dagoela. Latinoamerikako, Karibeko, Asiako eta Afrikako 35 estatuburu inguru biltzekoak dira Boliviako Santa Cruz de la Sierra hirian.

Garrantzi geopolitiko ikaragarria duten bi bloke daude gaur egun G77+Txina taldearen barruan. Alde batetik, ALBA (Gure Amerikako Herrientzako Aliantza Bolivartarra): gailurrean izango dira Raul Castro (Kuba), Rafael Correa (Ekuador) eta Nicolas Ma-

Oso garrantzitsua da G77+Txina izeneko taldearen eginkizuna. Izan ere, 1955ean Indonesiako Bandung hirian egin zen konferentziaz geroztik ez da iparralde kapitalistari aurre egiteko ahaleginik sortu.

1955ean Afrikako eta Asiako 29 herrialde elkartu ziren, horietako asko deskolonizazio eta independentzia prozesuetan sartuta zeudenak. Bilera hura Lerrokatu Gabeko Mugimenduaren sorrera eragingo zuen hazia izan zen. Geroztik ez da ezer egin iparraldeko herrialde kapitalisten nagusitasunari aurre egingo dion kontrapisua sortzeko. Nagusitasun horren ondorioz, Nazio Batuen sistema

osoa mendea dute. Noizbait aldatu beharko da erakunde hori. Hobe esanda, demokratikoagoa izango den beste batek ordezkatu beharko luke.

Hiru ekarpen

G77+Txina taldearen historia eta jarduera aztertuz gero, hiru ekarpen handi nabarmendu behar dira. Hiru ekarpen horiek nazioartean zein Nazio Batuen Erakundean Boliviako Estatu Plurinazionalak garatzen duen Herrien Diplomaziarekin lotuta daude.

1974an G77 taldeak hamar urte bete zituen. “Nazioarteko ordena ekonomiko berri baten

ezarpenari buruzko deklarazioa” Nazio Batuek onartzea lortu zuen orduan. Aipatu ordenak zuzentasunean, berdintasunean, burujabetzan, interdependentzian, ororen interesetan eta estatu guztien lankidetzan oinarrituta egon beharko luke, herrialde horien sistema ekonomikoa eta soziala edozein izanda ere. Sistema kapitalista sistema ekonomiko posible bakarra dela dioen ideia kinkan ipini zuen.

1986an “Garapenerako eskubideari buruzko deklarazioa” bultzatu zuen G77 taldeak. Testu hartan esaten zen herrialde pobretuek eta garapen bidean daudenek garatzeko eskubidea dutela; giza eskubideen ondoan ipini

{ **analisia** } **Katu Arkonada**

Herri pobretuen gailurra

duro (Venezuela), iraultza bolivartarrari elkartasuna adieraztea inoiz baino garrantzitsuagoa den momentuan. Beste blokea BRICS bezala ezagututakoa da, Errusia faltako den arren, Txinak, Indiak, Hegoafrikak eta Brasilek goi mailako ordezkaritza bidaliko dutela baieztatu baitute.

BRICS blokeko herrialdeetan planetako populazioaren %42 inguru bizi da, eta bertako jarduera ekonomikoa munduko barne produktu gordinaren %20tik gorra izatera iristen da. Aipatu herrialde horiek erabakigarriak dira egun bizi dugun polo bakarreko mundutik polo anitzeko mundura edo mundu multipolarrera trantsizioa egiteko. Geopolitikaren taulan BRICS blokeko herriek egin dituzten azken mugimenduei erreparatu besterik ez dago horretaz konturatzeko: Siria eta Ukrainako krisietan izan duten eginkizuna, Txinak eta Errusiak adostu berri duten 400.000 milioi dolarreko energia akordioa eta ia Amazonia osoa bere esku duen Brasilek azken urteotan izandako hazkunde ekonomikoa.

Gaur eta bihar egingo da Boliviako Santa Cruz de la Sierran G77+Txina taldearen gailurra, erakundeak mende erdia betetzen duenean. Egileak hitzordu horren garrantzia azaltzen du, G77 taldeak urteotan lortu duena esplikatzearaz gain.

beharreko elementu moduan defenditu zuten aipatu eskubidea. Adierazpen hark jasotzen zituen deskolonizazioa, herrien autodeterminazioa eta garapen bidean dauden herrialdeen aldarrikapen garrantzitsu bat: herriak direla herrialde bakoitzeko baliabide naturalen jabe.

Azkenik, klima aldaketa eta garapenari buruzko gailur ezberdinetan G77+Txina taldeak funtsezko bi elementu jarri ditu mahaiaren gainean krisi klimatikoari aurre egiteko, kapitalismoaren krisiaren zati bat besterik ez den beste krisi horri aurre egiteko: herrialde guztiak, Iparraldekoak zein Hegoaldekoak, direla erantzule, baina maila ezberdinetan; eta herrialde industrializatu eta kapitalistek Hegoaldeko herriekiko duten zor klimatikoa.

Bolivian egingo den G77+Txina taldearen gailurrak ematen dituen emaitzen balorazioa egiteko garaian, testuren batean adieraziko diren emaitzak neurterakoan alegia, oso kontuan hartu beharko dugu neoliberalismoaren ondorengo trantsi-